



ALKATETZAREN MEMORIA: 2021EKO AURREKONTUAK

2021eko aurrekontuak onartzeko bideratu den espedientearen barruan, nahitaezkoa da Alkatetzaren Memoria hau sartzea.

Memoria honen helburua da udal gobernu-taldeak 2021. ekitaldirako prestatu duen aurrekontuaren zirriborroko partidarik esanguratsuenak banakatu eta argitzea, eta Alkatetzak gainerako udal talde politikoekin egin dituen negoziazioen berri ematea, aurrekontuok onets daitezzen.

Negoiazio hori, alde batetik, gobernu-talde sozialistak Udalaren eguneroko kudeaketa bultzatzeko duen borondatearen isla da, ahal den neurrian, Udal honetan oposizioko alderdi politiko guztiekin edo batzuekin akordioak eginez. Elkarrizketarako eta negoziatzeko jarrera, gobernu-talde sozialistaren egunerokotasunean konstantea dena. Eta bestetik, gutxiengoan gobernatzen dugula jakinda, negoziazioak datorren urterako Udal Aurrekontuak onartuko direla bermatzeko laguntza nahikoa izateko behar logikoari erantzuten dio, eta, horrela, eskura izango dugu Gobernu-talde hau 2019an Eibarko Alkatetzara eraman zuen hiri-proiektuan aurrera egiteko funtsezko kudeaketa-tresna.

Gainerako taldeek akordio bidez egindako ekarpenek beti aberastuko dute aurkeztutako zirriborroa, ekimenen beste ikuspegi osagarri bat emango dute, eta hiria eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko bidean aurrera egiten lagunduko dute.

Hori guztia hain testuinguru ekonomiko eta sozial kritikoan, non, ez bairik gabe, dena baldintzatzen ari baita.

Martxoaren 14an Pedro Sánchezen gobernu espainiarra alarma-egoera dekretatzera eraman zuen COVID-19 pandemiaren ezusteko agerpenak goitik behera aldatu ditu gure harreman moduak, gure ohiturak eta azturak, eta, azken batean, erabat aldatu ditu gure bizimodua eta mundua ulertzeko dugun modua. Pandemia hau, eta ez dut nahasteko beldurrik, izan zenaren eta izango denaren arteko mugarria da. Ohiz kanpoko "normaltasun berria": ostalaritzako murrizketak eta itxierak, sekula inoiz ikusi ez direnak, etxeratze-aginduak, ospakizun atipikoak, gutxienez murriztutako gizarte-harremanak, langabezia-zifra onartezinak eta egunero modu ezin gordinagoan astintzen gaituzten hildakoen zenbaketa latz mingarria.

Azken asteek birusaren aurkako txerto bat laster iristeari buruzko berri itxaropentsuak ekarri dizkiguten arren, egia esan, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak beste krisi bat ekarri du, kasu honetan, krisi ekonomikoa eta soziala. Krisiaren hedadura errealia ez da ezagutzen epe labur eta ertainera, baina horren ondorioak, dagoeneko, zuzenean jasaten ari dira herritar guztiak.

Gure merkatariak, gure ostalariek eta gure enpresaburuek, egunak aurrera doazen heinean, gero eta arrisku handiagoan ikusten dute beren negozioren etorkizuna, eta, beraz, milaka eta milaka familiaren diru-sarreraren iturria. Eta, nola ez, eibartarrenak ere bai.



Hori dela eta, Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio publikoaren arloak, egoerak eskatzen dionaren mailan egon behar du, ahalegindu behar da bere baliabideen kudeaketa inoiz baino eraginkorragoa izan dadin, eta, ahal duen neurrian, kolokan dagoen gizarte bat erreskatatzera jo behar du, eta, gainerako administrazioen baliabideekin batera, hondamendiaren tamainarekin bat datorren babes-maila eman behar dio gizarteari.

Hala, Alkatetza honek, 2020ko martxoan eta apirilean, alarma-egoera deklaratu eta ondorio larriak izango zituela jabetuta, Udalaren aurrekontua birmoldatu, partidak berregokitu, funtsezkoak ez ziren proiektuak atzeratu eta lehentasunak ezarri zituen, Udaleko gainerako talde politikoekin adostuta, 1.700.000 euroko Talka Plan batera bideratuz, COVID-19 pandemiaren ondorioei aurre egin eta ondorioak leuntzeko.

Zalantzarik gabe, 2021ean zehar, aurrekontuaren zati handi bat COVID-19 pandemiaren ondorioen aurka borrokatzea bideratzen jarraitu beharko da, maila guztietan. Horregatik, Alkatetza honek horri buruzko planteamendu bat helarazi die Udaleko gainerako talde politikoei.

Ondorioz, 2021erako aurrekontuen zirriborro baten aurrean gaude, non, COVID-19aren krisiak eta horrek maila guztietan dituen ondorioek nabarmen eragiten duten, eta Alkatetza honek hura osatzen duten partida garrantzitsu batzuetarako aurrekontuan jarritako zenbatekoak justifikatzen diren. Gainera, Udal Kontuhartzaitzak egindako gomendioak gehitu behar zaizkio horri; izan ere, aurrekontuen arloko lege-eskakizunak betetzeko, aurrekontuari galga jartzea edo aurrekontuaren kontentzio-egintza bat eskatzen dute, eta, aldi berean, 2021ean egin beharreko inbertsio errealak moderatzea, aurrerago azalduko den moduan.

Hala, aurtengo azaroaren hasieran Udal honetako gainerako alderdi politikoei aurkeztutako zirriborroarekin bat etorriz, 2021eko aurrekontua 38.471.119,39 eurokoa da, eta 2020rako onartutako aurrekontuarekin alderatuz gero (kontuan hartu gabe lehen aipatu dudan egokitzapena eta beste talde politiko batzuekin egindako negoziazioaren ondorioz sartutako zuzenketen zenbatekoa), ia 10 milioi euro murriztu da.

Aurrekontu-murrizketa hori, batetik, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak kontrolatuzetik dator, eta, bestetik, neurri txikiagoan bada ere, kapital-transferentziak murriztetik; baina, batez ere, inbertsio errealak nabarmen murriztu izatetik, ondoren, gastuen atalean, zehetasun gehiagorekin azalduko dudan moduan.

Hala ere, gure hauteskunde-programak, gutxiengoan gobernatzean Agintaldi Plan bihurtzen denak, indarrean eta martxa onean jarraitzen du, eta bere proposamenekin elikatzen ditu aurrekontu horiek biltzen dituzten kapituluak. Hala ere, gaur egungo testuingurua, dagoeneko luze eta zabal azaldu duguna, oztopo da aurrekontu horiek al bait lasterren errealitate bihurtzeko.

Hori guztia herritarren parte-hartzea ahazteke, giltza baita udal aurrekontuen bidez garatzen den udal politikagintza orientatzeko. Horregatik, aurrekontuan islatzen dira Udal honek garatu edo garatzear dituen parte-hartze prozesuen emaitzak, auzoetako bilerak edo Udalera modu naturalean iristen zaizkigun proposamenak.



Halaber, beste erakunde batzuekiko lankidetzari esker, Udalaren proiektuak abian jarri ahal izango dira, erakundeen laguntzarekin edo Udalaren ekarpena eta lankidetzak eskatzen duten beste erakunde batzuen proiektuak lagunduz.

Eta, azkenik, baina garrantzi berberarekin, gainerako udal taldeen ekarpenak.

Beraz, 2021. ekitaldirako aurrekontuen zirriborro bat aurkezten dugu, COVID-19aren pandemiak oso baldintzatua, gastuaren kontrolean oinarritua, egungo inguruabar honetan herritarren interesak eta beharrak lehenesten dituen eta, batez ere, eskura ditugun baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra eskatzen duena.



DIRU-SARRERAK KAPITULUAREN EGOERA

Beste ezeren aurretik, eta 2021 ekitaldirako aurrekontuen zirriborroan jasotako diru-sarreraren aurreikuspena xehetzen hasi aurretik, Finantza-pasiboei buruzko 9. Kapitulu izango dut hizpide, labor bada ere. Kapitulu horrek, kredituaren bidez, ahalbidetuko du aurrekontua behin betiko orekatzea, eta, gure zorpetze-ahalmenaren arabera, diru-sarreraren ahalmen garbiak emango lukeena baino gastu gehiago hartu ahal izango ditu bere gain. Hori funtsezkoa da COVID-19 pandemiaren testuinguru ekonomikoan.

Beraz, 9. Kapitulu hori alde batera utzita, ekitaldi honetan 32.028.896,84 euroko diru-sarrerak aurreikusten ditugu; 2020ko ekitaldirako aurrekontuetan, berriz, 38.326.376,19 euro izan ziren aurreikusitakoak.

Aurreikusitako diru-sarreraren murrizketa nabarmen horren arrazoia, zalantzarik gabe, krisi- eta ziurgabetasun-egoera da. Egoera horrek, maila guztietan, COVID-19aren pandemia ekarri digu, eta eragina du aurrekontuaren hainbat kapitulutan, aurrerago azalduko dudana bezala.

Baina kontzienteki hartutako erabaki politikoei ere erantzuten die, duela urte batzuetatik hona, Eibarko herritarren onurarako izan dira erabakiak, hala nola Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea, gure etxebizitzetan, fatxadetan, teilatuetan edo erkidegoko igogailuetan egiten ditugun obra txikietan — eta horregatik nabarmentzen da Eibar inguruko beste udalerrri askoren artean—; gure Udal Ordenantza Fiskalak etengabe izoztea, hau da, gure herritarren poltsikoak ez grabatzea; eta dauden baliabideen kudeaketan eraginkorrakoak izatea.

Azken gai hori aipatuko dut aurrenik.

Udal Batzarrak, Alkatetza honek eskatuta, duela aste batzuk onetsi zuen berriro Udalaren Ordenantza Fiskalak 2021. ekitaldirako izoztea.

Alkatetza honek Udaleko gainerako alderdiei Ordenantza hauek izoztea proposatzen dien seigarren urtea da jarraian. Eta hori, nahiz eta Udal Kontu-hartzailetzak, bere eskumenak erabiliz, gehitzea gomendatzen duen.

Egia esan, COVID-19 pandemia agertu aurretik, mikroekonomiak, familia-ekonomiak, etxeko ekonomiak, eta ekonomia indibidualak oraindik 2008ko krisiaren ondorioak pairatzen ari ziren, gaur egungo krisi gogorrenetako, luzeenetako eta gogorrenetako bat. Eta hori dela eta, Udaletik, azken urteotan, mikroekonomia horrekiko sentiberatasuna erakutsi nahi izan dugu, Ordenantza Fiskalak izoztuz.

Alkatetza honek uste zuen, gaur egungo testuinguruan, izoztea inoiz baino beharrezkoagoa zela, eta horregatik, seigarren urtez jarraian izozte hori egitea proposatu zuen, Udalbatzak hartutako erabakiari esker berriro aurrera atera zena.

Ikuspegi kuantitatibotik, aurretik aipatutako aurreikusitako diru-sarrera murrizketa horren arrazoibideak, funtsean, hauexek dira:



- **2. kapituluaren (zeharkako zergak) aurreikusitako diru-sarreraren murrizketa garrantzitsua, zehazki, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergan.**

2020ko aurrekontuan sartuta zeuden 1.990.000 euro horien aurrean, 2021eko aurrekontuaren zirriborroak bakarrik 250.000 euro islatzen ditu.

Zalantzarik gabe, egungo testuinguru ekonomiko eta sozialak ez du batere zerikusirik 2020ko aurrekontuak onartzean zegoenarekin. COVID-19aren pandemiak ekonomian duen eragina dela eta, Alkatetza honek zuhurtasunez jokatu du 2021eko ekitaldirako kontzeptu horren diru-sarrerak aurreikusteko orduan, gaur egun gure hirian martxan jarritako hirigintza-garapenak larriki ahultzen ari baitira. Gogora dezagun partida hau ekimen horietako bakoitzak duen egikaritze-aurrekontuaren % 5arekin elikatzen dela.

Hala, 2020k ekarri digu Bolinguako higiezin-sustapenak, azkenik, ez duela aurrera egingo. Bestalde, beste sustapen garrantzitsu batek, El Casco-koak, atzerapena izango du.

Ondorioz, egungo inguruabarrek bereziki zurrak izatera behartzen gaituzte eta partida honen aurrekontua esandako zenbatekoan egitera.

Eta hori guztia, izaera sozialeko neurri bati eusten segitzen dugula ahazteke, hainbat hamarkadatan dagoena indarrean; gutxi dira hori egiten duten udalak. Neurri hori gure etxebizitzetan, fatxadetan, teilatuetan edo auzogailuetan egiten ditugun obra txikietan zerga hori ordaintzetik salbuestea da.

- **Transferentzia arrunten 4. kapituluaren barruan, Udal Finantzaketarako Foru Funtza.**

2020rako onartutako aurrekontuari dagokionez (19.970.952 euroko diru-sarrerak zituen kontzeptu honetan), 2021erako aurrekontuen zirriborroak 18.551.270 euroko zenbatekoa aurreikusten du, hau da, 1.400.000 eurotik gorako murrizketa.

Kontuan hartu behar dugu Foru Aldundiak dirua biltzeko duen ahalmenaren ondorio dela Foru Aldundiaren ekarpen hau, eta, COVID-19ren pandemiak eragindako egungo egoera ekonomikoa ikusita, ezin izango zaiola eutsi azken urteotako goranzko joera jarraitu horri. Nolanahi ere, Foru Funtzak 2021erako aurrekontuan sartutako diru-sarrera guztiekiko duen garrantzia azpimarratu behar dugu, aurrekonturatu diren diru-sarreraren % 51 baino zertxobait gehiago hartzen baitu.

- **Hirigintzako jarduketan ondoriozko inbertsio errealak eta bestelako diru-sarrerak besterentzeko 6. kapituluak beherakada benetan nabarmena izan du: 2020an aurreikusitako 3.065.000 eurotik 2021ean aurreikusitako 500.000 eurora pasatu da.**

Alde batetik, kontuan hartu behar dugu 2020ko aurrekontuan, partida horren barruan, 1.500.000 euroko diru-sarrerak aurreikusten zirela, ERREBAL PLAZIA eraikineko -2. solairuan kokatutako garaje eta trastelekuak emakidaz adjudikatzearen ondorioz, eraikina 2020ko azarorako amaitzea aurreikusten baitzen.

Hala ere, COVID- 19aren pandemiaren ondorioek obren exekuzioan ekarri duten atzerapenak eta proiektuaren beharrezko egokitzapenak 2020an ezinezko egin dute aurreikusitako zenbatekoa gauzatzea, eta hori 2021ean izango da.

Gauza bera gertatzen da udalerrian dauden hirigintza-garapenen hirigintza-aprobetxamenduaren % 15ari dagozkion diru-sarrerak biltzen dituen partidarekin.

COVID-19aren etorrerak eragindako geldialdiaren ondorioz, Bolinguako higiezin-sustapenak porrot egin du, lehen esan bezala, eta beste proiektu batek, El Casco-koak, atzerapen handia pairatu.

Berriro ere, pandemia sortzen ari den ziurgabetasun-egoeraren ondorioz, Alkatetza bereziki zuhurra izan da kontzeptu horiengatik diru-sarrerak aurreikusteko orduan, eta aurrekontuan jasotako zenbatekoa 500.000 eurokoa izan da.

Azkenik, zuzeneko diru-sarrerei buruzko 1. kapitulua (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Gainbalioa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) 8 milioi eurotik gorakoa da (8.056.100 euro), eta beherakada txiki bat izan du 2020ko ekitaldiko aurrekontuarekiko. Era berean, Tasei eta Bestelako Diru-sarrerei buruzko 3. Kapitulan, jaitsiera txiki bat gertatu da: 1.497.456 euro aurreikusi dira 2021erako, eta 1.542.043,46 euro ziren 2020an.

Gainerako taldeek akordio bidez egindako ekarpenek beti aberastuko dute aurkeztutako zirriborroa, ekimenen beste ikuspegi osagarri bat emango dute, eta hiria eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko bidean aurrera egiten lagunduko dute.

Hori guztia hain testuinguru ekonomiko eta sozial kritikoan, non, ezbairik gabe, dena baldintzatzen ari baita.

Martxoaren 14an Pedro Sánchezen gobernu espainiarra alarma-egoera dekretatzera eraman zuen COVID-19 pandemiaren ezusteko agerpenak goitik behera aldatu ditu gure harreman moduak, gure ohiturak eta azturak, eta, azken batean, erabat aldatu ditu gure bizimodua eta mundua ulertzeko dugun modua. Pandemia hau, eta ez dut nahasteko beldurrik, izan zenaren eta izango denaren arteko mugarria da. Ohiz



kanpoko “normaltasun berria”: ostalaritzako murrizketak eta itxierak, sekula inoiz ikusi ez direnak, etxeratze-aginduak, ospakizun atipikoak, gutxienezko murriztutako gizarte-harremanak, langabezia-zifra onartezinak eta egunero modu ezin gordinagoan astintzen gaituzten hildakoen zenbaketa latz mingarria.

Azken asteek birusaren aurkako txerto bat laster iristeari buruzko berri itxaropentsuak ekarri dizkiguten arren, egia esan, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak beste krisi bat ekarri du, kasu honetan, krisi ekonomikoa eta soziala. Krisiaren hedadura errealak ez da ezagutzen epe labur eta ertainera, baina horren ondorioak, dagoeneko, zuzenean jasaten ari dira herritar guztiak.

Gure merkatariak, gure ostalariak eta gure enpresaburuek, egunak aurrera doazen heinean, gero eta arrisku handiagoan ikusten dute beren negozioen etorkizuna, eta, beraz, milaka eta milaka familiaren diru-sarreraren iturria. Eta, nola ez, eibartarrenak ere bai.

Hori dela eta, Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio publikoaren arloak, egoerak eskatzen dituzten mailan egon behar du, ahalegindu behar da bere baliabideen kudeaketa inoiz baino eraginkorragoa izan dadin, eta, ahal duen neurrian, kolokan dagoen gizarte bat erreskatatzera jo behar du, eta, gainerako administrazioen baliabideekin batera, hondamendiaren tamainarekin bat datorren babes-maila eman behar dio gizarteari.

Hala, Alkatetza honek, 2020ko martxoan eta apirilean, alarma-egoera deklaratu eta ondorio larriak izango zituela jabetuta, Udalaren aurrekontua birmoldatu, partidak berregokitu, funtsezkoak ez ziren proiektuak atzeratu eta lehentasunak ezarri zituen, Udaleko gainerako talde politikoekin adostuta, 1.700.000 euroko Talka Plan batera bideratuz, COVID-19 pandemiaren ondorioei aurre egin eta ondorioak leuntzeko.

Zalantzarik gabe, 2021ean zehar, aurrekontuaren zati handi bat COVID-19 pandemiaren ondorioen aurka borrokatzea bideratzen jarraitu behar da, maila guztietan. Horregatik, Alkatetza honek horri buruzko planteamendu bat helarazi die Udaleko gainerako talde politikoei.

Ondorioz, 2021erako aurrekontuen zirriborro baten aurrean gaude, non, COVID-19aren krisiak eta horrek maila guztietan dituen ondorioek nabarmen eragiten duten, eta Alkatetza honek hura osatzen duten partida garrantzitsu batzuetarako aurrekontuan jarritako zenbatekoak justifikatzen diren. Gainera, Udal Kontuhartzailtzak egindako gomendioak gehitu behar zaizkio horri; izan ere, aurrekontuen arloko lege-eskakizunak betetzeko, aurrekontuari galga jartzea edo aurrekontuaren kontentzio-egintza bat eskatzen dute, eta, aldi berean, 2021ean egin beharreko inbertsio errealak moderatzea, aurrerago azalduko den moduan.

Hala, aurtengo azaroaren hasieran Udal honetako gainerako alderdi politikoei aurkeztutako zirriborroarekin bat etorriz, 2021eko aurrekontua 36.249.982,58 eurokoa da, eta 2020rako onartutako aurrekontuarekin alderatuz gero (kontuan hartu gabe lehen aipatu dudana egokitzapena eta beste talde politiko batzuekin egindako negoziazioaren ondorioz sartutako zuzenketen zenbatekoa), ia 10 milioi euro murriztu da.



Aurrekontu-murrizketa hori, batetik, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak kontrolatzetik dator, eta, bestetik, neurri txikiagoan bada ere, kapital-transferentziak murriztetik; baina, batez ere, inbertsio errealak nabarmen murriztu izatetik, ondoren, gastuen atalean, zehetasun gehiagorekin azalduko dudan moduan.

Hala ere, gure hauteskunde-programak, gutxiengoan gobernatzean Agintaldi Plan bihurtzen denak, indarrean eta martxa onean jarraitzen du, eta bere proposamenekin elikatzen ditu aurrekontu horiek biltzen dituzten kapituluak. Hala ere, gaur egungo testuingurua, dagoeneko luze eta zabal azaldu duguna, oztopo da aurrekontu horiek al bait lasterren errealitate bihurtzeko.

Hori guztia herritarren parte-hartzea ahazteke, giltza baita udal aurrekontuen bidez garatzen den udal politikagintza orientatzeko. Horregatik, aurrekontuan islatzen dira Udal honek garatu edo garatzear dituen parte-hartze prozesuen emaitzak, auzoetako bilerak edo Udalera modu naturalean iristen zaizkigun proposamenak.

Halaber, beste erakunde batzuekiko lankidetzari esker, Udalaren proiektuak abian jarri ahal izango dira, erakundeen laguntzarekin edo Udalaren ekarpena eta lankidetzak eskatzen duten beste erakunde batzuen proiektuak lagunduz.

Eta, azkenik, baina garrantzi berberarekin, gainerako udal taldeen ekarpenak.

Beraz, 2021. ekitaldirako aurrekontuen zirriborro bat aurkezten dugu, COVID-19aren pandemiak oso baldintzatua, gastuaren kontrolean oinarritua, egungo inguruabar honetan herritarren interesak eta beharrak lehenesten dituen eta, batez ere, eskura ditugun baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra eskatzen duena.



GASTUEN KAPITULUEN EGOERA

Lehen esan bezala, 2021eko aurrekontua 38.471.119,39 eurokoa da, eta 2020rako onartutako aurrekontuarekin alderatuz gero (kontuan hartu gabe lehen aipatu dudan egokitzapena eta beste talde politiko batzuekin egindako negoziazioaren ondorioz sartutako zuzenketen zenbatekoa), ia 10 milioi euro murriztu da.

Aurrekontu-murrizketa hori, batetik, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak kontrolatzetik dator, eta, bestetik, neurri txikiagoan bada ere, kapital-transferentziak murriztetik; baina, batez ere, inbertsio errealak nabarmen murriztu izatetik, ondoren azalduko dudan moduan.

- **Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak kontrolatzea.**

2020ko aurrekontuak ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetan 12.285.710,48 euro bazituen ere, 2021erako aurrekontuen zirriborroak 11.069.600,66 euro dauzka, hau da, % 11 inguruko murrizketa. Aurretik azaldu dudan moduan, COVID-19aren krisiak eta maila eta arlo guztietan izan dituen ondorioak, gaur egun premia ezinbestekoei erantzuteko berme izango diren funtsak eskatzen ditu. Horregatik proposatu du Alkatetza honek gastuok murriztea eta gastuon kudeaketa eraginkorrean sakontzea.

- **Inbertsio errealen erabateko murrizketa.**

2020ko aurrekontuak inbertsio errealetan 10.962.555,26 euro bazituen ere, 2021erako aurrekontuen zirriborroak 4.071.995,51 euroraino murriztu ditu, hau da, % 60tik gorako murrizketa.

Alderantziz, Alkatetza honek ez die ezertan ukitu pertsonal-gastuei. Hain zuzen, 2021eko aurrekontuen zirriborroari funtzionarioen soldatak eguneratzea erantsiko dio, eguneratze hori onar dadin. Hori dela eta, aurreikusitako 13.771.645,78 euroko partida dagokion portzentajea gehituko da; gainera, gai horri buruz Udal honetako alderdi politiko guztien akordioa dago. Igoera barne, 13.886.986,29 euro inbertituko ditu Eibarko Udalak soldatetan.



ETORKIZUNeko EIBARKO HERRIAREN OINARRIAK JARRI DITUGU.

Gero eta herritar gehiagok eskatzen dute herrigunean aisialdirako gune berriak sortzea, eta hori bat dator etorkizuneko Eibar horri buruz dugun ideiarekin: Pertsonentzako eta pertsonen aldeko herria.

Hiriko aisia-eremuak izateak, zalantzarik gabe, eibartarren bizi-kalitatea hobetzea dakar; izan ere, hirikoak izan ohi diren zerbitzuek eta inguruneek aire zabaleko aisiarekin, familiarekin edo ingurumenarekin konbinatzea ahalbidetzen dute, gizarte modernoetan gero eta presentzia handiagoa baitute.

Hori dela eta, Gobernu Taldea lanean ari da Eibarri gero eta handiagoak diren premiei erantzungo dieten espazioak emateko, hiri osasuntsuagoa eta jasangarriagoa bihurtuz.

Hala, bada, Sakuneko jolas-eremu berdea, azkenean, 2021ean errealitate izango da. Proiektuan, gerriko berdearen tarte bat sortzea aurreikusten da, pasealekurako, Jardinetako goiko aldea eta saihebidetaren Arrateranzko irteeraren ondoan dagoen parkea lotuko dituen, Sakundik eta Pitxargainetik igaroko dena eta Itzioko ikastetxea inguratuko duena.

Era berean, pasealeku horretan, eta lehendik dagoen aurreproiektuarekin bat etorritik, 25 bat lursail edo partzela jarriko dira, bakoitza 75 metro koadrokoa, herritarrek autogestionatuko dituzten herri-baratzeetarako, kultura ekologikoa sustatzearen aldeko apustu gisa.

Horrekin lotuta, eta ELKARREKIN PODEMOSekin 2020an lortutako akordioaren ondorioz, aurrekontu-partida garrantzitsu bat jarriko dugu MIRABASO baso-lorategia egiteko.

Ekimen horiei esker gaur egun oso beharrezkoa den aisialdirako gunea sortuko da.

Gure auzoen irisgarritasuna hobetzen darraigu.

Hala, 2021ean, aurrekontuaren zati handi bat Ubitxa-San Kristobal igogailuaren proiektuari ekiteko erabiliko dugu. Proiektu horrek, etorkizun hurbilean, herriaren alde horren irisgarritasuna hobetuko du. Halaber, Mekola eta Arratebideko irisgarritasuna hobetzen hasiko gara; izan ere, 2021ean izango dugu horri dagokion proiektua. Eta ahalegin guztia egingo dugu Jardinetako igogailuen proiektuari ekiteko.

Hori guztia, 2021ean ERREBAL PLAZIA behin betiko martxan jarriko dugula ahazteke. Azokako plaza berri batez gain, eraikin horrek aisialdirako gune estali berri bat izango du hirian, eta 200 aparkaleku inguru (100 emakidan eta 100 txandakako aparkalekuan), besteak beste. Eta Errebal eta Muzategi kaleak berrurbanizatzeko lanak behar bezala amaituta ikusiko ditugu.



Eta herri honen nortasun-ezaugarrietako baten aldeko apustua egiten jarraituko dugu. Industria-tradizioa.

Berriro ere, 2021eko ekitaldirako aurrekontuaren zati handi bat, 3.000.000 euro baino gehiago, gure herriaren garapen ekonomikoarekin eta enpresarialarekin zerikusia duten programa eta ekintzetarako erabiliko da.

Izan ere, orain inoiz baino beharrezkoagoa da gure hirian ekonomia- eta enpresare sendoa izatearen aldeko apustua egitea. Prestakuntza- eta enplegu-programak; ekintzailtzari laguntzeko programak; enplegarritasuna hobetzeko programak, Cruz Irasuegui bekak, Toribio Echevarría Sariak...

Eta Udaletik COVID-19aren kontra egiten jarraituko dugu.

Memoria honetan luze eta zabal azaldu dudan bezala, COVID 19aren pandemiak den-dena baldintzatu du, 2021eko ekitaldirako aurrekontuak egitea eta gainerako talde politikoekin negoziatzea barne.

2020ko martxoan eta apirilean, Udal honek, gainera zetorren egoera ekonomiko larria aurreikusiz, Udaleko gainerako talde politikoekin bat hartuta, Talka Plana prestatu zuen, 1.700.000 euro emanez COVID- 19aren ondoriozko konfinamenduan itxi behar izan zuten negozioei laguntzearen, krisiaren eraginez beren ekonomiak ahulduta geratzen diren pertsona pobrenei laguntzearen; azken finean, krisi honetatik sortu diren beharrei estaldura duin bat ematearren.

2021ean, bistan da ildo horretan lan egiten jarraitu beharko dugula, horretarako behar den beste baliabide edo baliabide gehiago erabiliz, eta ezinbestekoa da Talka Plan berri bat egitea.



NEGOZIAZIOA UDAL TALDEEKIN

Alkatetza honek, Memoria honen hasieran adierazi bezala, jakin badaki gutxiengoan gobernatzen duela eta, beraz, ezinbestekoa duela Udalaren beste indar politiko batzuekin akordioak lortzea 2021. ekitaldiko aurrekontuaren onespena bermatzeko. Nolanahi ere, azaldutako arrazoi horretaz gain, Alkatetza honek uste osoa du gainerako talde politikoekin egindako akordioek udal kudeaketa hobetzeko balio dutela, betiere, akordioak egin ahal direnean. Eta hori aurrekontuetara ere zabaldu daiteke, Alkatetza honen iritziz herriarentzat berez ere ona zen dokumentu bat aberasten duten bisioak eta ideiak biltzen baititu.

Ekitaldi honetan, azaroaren hasieran aurkeztuko dugu aurrekontuen zirriborroa, 2020ko ekitaldi honen barruan onartzeko itxaropenez eta aurrekontuok ahalik eta azkarren indarrean izateko.

Zorionez, eta aurreko urteetan ez bezala, gainerako udal talde politikoek aurkeztutako zuzenketa negoziazio-prozesua ohikoa baino azkarragoa izan da. Seguru asko, alderdi guztiek dakusatelako bizi dugun egoera zein delikatua den, eta denek ikusten dutelako aurrekontuak ahalik eta lasterren izateko premia. Horregatik, akordioak sinatu diren ala ez alde batera utzita, Alkatetza honek berriaz eskertu nahi die udal alderdi guztiei egindako ahalegina.

Udal honetako talde politiko guztiek aurrekontuak ahalik eta bizkorren onartzeko akordioak lortzeko aurten izan duten jarrera hurrengo urteetako joera orokorra izango dela espero dut.

EIBARKO EAJ-PNV

2.000.000 eurotik gorako zuzenketa partzialak aurkeztu ziren.

Gure ustez, Eibarko EAJ-PNV taldeak, joan zen urtean bezala, orduan ere aurrekontu-akordio batera iritsi baikinen, erantzukizun- eta posibilismo-ariketa bat egin du.

Horrela, 700.000 euroko zuzeneko eragin ekonomikoa duen akordioa lortu da, COVID-19aren pandemiaren ondorioen aurkako talka-neurriak abian jartzeko eta zenbateko txikiagoko beste hainbat ekimen bultzatzeko. Era berean, Errebal Plazia eraikineko -2. solairuko garajeak eta trastelekuak emakidaz adjudikatzearen ondorioz 2021ean izango diren diru-sarreraren % 30 Legarren aparkaleku bat egiteko lizitaziorako gordetzeko konpromisoa hartu da, 2.0000.612.02.000.00 "Beste eraikin eta eraikuntza batzuk" partidaren hasieran zuzkituta dagoen 500.000 euroko zenbatekotik gorakoa bada, eta, aipatutako kopurua behar bestekoa ez bada, Eibarko PSE-EE udal alderdiaren aldaketa bat proposatzeko konpromisoarekin.



EIBARKO EH-BILDU

Hasiera batean, udal alderdi honek hainbat zuzenketa partzial, 3.565.000 eurokoak, aurkeztu zituen. Negoziazio prozedura baten ondorioz, akordioa jarraian zehaztuko den moduan amaitu da.

Uste dut, aurreko kasuarekin esan dudan bezala, Eibarko EH-Bilduk erantzukizun- eta posibilismo-ariketa bat egin duela, aipatutako akordioa lortzeko.

Modu honetan, akordioa lortu da, 500.000 euroko zuzeneko eragin ekonomikoa izango duena COVID-19aren eraginaren aurkako talka planean jasotako neurriak eta diru-kopuru txikiagoko beste ekimenak abian jartzeko.

Era berean, lortutako akordioaren arabera, Errebal Plazia eraikineko -2. solairuko garajeak eta trastelekuak emakidaz adjudikatzearen ondorioz 2021ean izango diren diru-sarreraren %24a Andretxeako behin betiko egoitza izango den Astelena pilotalekuaren ondoan dagoen Isasi kaleko eraikinaren barnealdea egokitzea bideratuko dira, 2.0000.612.02.000.00 "Beste eraikin eta eraikuntza batzuk" partidaren hasieran zuzkituta dagoen 500.000 euroko zenbatekotik gorakoa bada.

Gainera, Proiektu hau Gobernu sozialistaren Programaren parte da, eta egungo gobernu taldearen helburua da hau egitea, jakinik lehen aipatutako ehunekoa ez dela nahikoa izango proiektuaren %100 osatzeko, hasierako aurrekontua 900.000 eurokoa baino gehiagokoa delako. Horregatik, Eibarko PSE-EE taldeak helburu horretarako beharrezkoak diren funtsak bideratzeko konpromisoa hartzen du, modu horretan, eraikinaren barnealdea egokitzeko lanak 2021 urtean zehar martxan jar daitezten.

Akordioa beste hainbat konpromiso gehigarri txikirekinosatzen da.

ELKARREKIN PODEMOS-EIBAR

1.694.000 euroko zuzenketa partzialak, COVID 19aren pandemiaren ondorioen aurka borrokatzeko proposamen-sorta barne hartzen dutenak, 1.000.000 eurokoak; eta neurri gehigarriak, 694.000 eurokoak.

Alde biek ahalegina egin arren, ezinezkoa izan da bien arteko akordioa lortzea.

Nolanahi ere, espero dut hurrengo ekitaldietan aurrekontuen aldeko bere botoa izatea, 2020an gertatu zen bezala.



Baiezta dezaket, erabat konbentziturata, Gobernu Taldeak aurkeztutako Aurrekontuen Zirriborroa, akordioen aurretik ere ondo pentsatutako eta diseinatutako erreminta zela, Gobernu Taldeak eibartarrek hartutako konpromisoak beteko direla bermatzeko eta, era berean, hiriak aurrera egin dezan, modernogoa, atseginagoa eta jasangarriagoa izateko.

Eta baiezta dezaket baita ere, Eibarko EAJ-PNV eta Eibarko EH-Bildu udal taldeekin udal ekintzarako adostutako ekimen-multzoak gure proiektu sozialista aberasten duela, orain gauzatzen ari garen proiektua.

Asko dira 2021 urterako Aurrekontuen Zirriborroak biltzen dituen proiektuak. Espero dut denak gauzatu ahal izatea eta ahalik eta gutxienak izatea datozen ekitaldietarako atzeratu beharko ditugunak. Gure helburua beti izango da akordioetara heltzea aurrekontu bakoitza onartu ahal izateko, eta, horrela, gure konpromisoak bete ahal izatea, Eibarrek, bizi izateko, elkarrekin bizitzeko eta lan egiteko herri izaten jarrai dezan.

Eibarren, 2021eko urtarrilaren 5ean.

ALKATEA

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL